

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

2016 urtean herrialde pobretuen garapenerako lankidetzak proiektuak batera finantzatzeko diru laguntzen oinarri arauak onartzea

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko abuztuaren 19an egin zuen bileran hartu zuen erabakian onartu egin ziren 2016 urterako garapenerako lankidetzak proiektuen kofinantziatorako laguntzen deialdia arautzen duten oinarri-arauak.

Oinarri hauek jendaurrean erakutsiko dira zortzi eguneko epean, Gizarte Ongizate, Lankidetzak eta Osasun Arloko bulegoetan, interesatuek aztertu ahal izan ditzaten eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko. Egindako erreklamazioei buruz Korporazioak hartuko du bere erabakia eta oinarri hauek behin betiko onartuta geratuko dira epe horretan ez bada erreklamaziorik aurkezten.

Erakunde laguntza emailea:

Erakundea: Laudio Udala.

Bulegoa: Gizarte Ongizate, Lankidetzak eta Osasun Arloa.

Helburua:

Deialdi honen helburua da arautzea diru laguntzak ematea xede moduan dutenak kofinantzatzea gobernuz kanpoko erakunde eta gainerako diru irabazi asmorik gabeko beste erakunde lankideen proiektu eta ekintza planak, lagunduko dutenak herrialde txiroenetako hazkunde sozio-ekonomiko eta kulturalen eta jasaten ari diren arazoei buruz gure auzokideak sentsibilizatzeko eta Laudioko herritarren artean eta proiektuetan inplikaturako herrialdeetako kolektiboen arteko, edo euren onuraduen arteko elkartasunezko harremanak sortzeko.

Diru laguntzak emateko aurrekontua:

Guztirako zenbatekoa: 25.000,00 euro.

Oinarriak aztertu, informazioa eta dokumentazioa eskuratzea:

Laudio Udalako Gizarte Ongizate, Lankidetzak eta Osasun Arloko bulegoan, Herriko plazako 5. zenbakiko 2. solairuan, 944034840 telefonoan, 9:00-14:00 orduetara astelehenera ostiralera, ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik hasita Proiektuak aurkezteko epea amaitu arte.

Proiektuak aurkezteko lekua eta epea:

Deialdi honen marko barruan laguntza jaso ahal duten Garapenerako Lankidetzak Proiektuen kofinantziatorako diru laguntza eskaerak Herriko plazako 5 dauden Laudio Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan aurkeztu beharko dira sarrera erregistroa emateko.

Proiektuak aurkezteko epea hogeita hamar eguneko izango da, ALHAOn. Deialdi honen iragarkia argitaratuta agertu ondorengo egunetik hasita. Epearen azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, hurrengo lanegunera aldatuko da amaitzeko eguna. Posta bidalketaz aurkeztutako dokumentazioa Kontratazioko Araudi Orokorreko 100. artikuluan erabakitako baldintzen arabera arautuko da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: oinarrietan azaldutakoa:

Izapidetzeko onartuko diren eskaerak denboraz eta formaz aurkeztutakoak bakarrik onartuko dira.

Eskaintza eredia:

Deialdi honetan parte hartuko duten erakundeek oinarrietan aurrikitako eskaera-eredua hartuta, euren proiektuak eta oinarrietan seinalatutako dokumentuak aurkeztu behar izango dituzte.

Laudio, 2016ko abuztuaren 19a

Alkateak

JON IÑAKI URKIXO ORUETA